

LEKUNBERRI

Aldaketa ordenantza fiskaletan tarifak eguneratzeagatik eta Udalaren 2013ko ekitaldirako karga-tasa, prezio publiko eta zergak ezartzea. Hasierako onespena

Lekunberriko Udalak, 2012ko azaroaren 28an egin osoko bilkuran, erabaki zuen aldaketa hasiera batean onestea Lekunberriko udalerrian indarra duten tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten udal ordenantzetan, finkatuz-eta 2013ko ekitaldirako karga-tasa, prezio publiko eta zergak, ondotik ematen direnak:

Lehena.-Lur-ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera indarra izanen duten karga-tasa hauek onestea:

- 1.1. Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko, %0,425eko karga-tasa ezartzea.
- 1.2. Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko, %0,80ko karga-tasa ezartzea.

Bigarrena.-Egungo indize-eskala mantentzea 2013rako jarduera ekonomikoen gaineko zergan zehaztutako gutxieneko kuotei ezartzeko.

- 2.1. 1,4 indizea aplikatzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifei.

Hirugarrena.-Zerga hauei aplikatzeko portzentajea onestea:

- 3.1. Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga:

- 3.1.1. Karga-tasa: %20, aplikatzekoa den zerga-oinarriaren gainean.

Indizeak:

- 5 urte bitarteko aldia: 3,3.
- 10 urte bitarteko aldia: 3,2.
- 15 urte bitarteko aldia: 3,1.
- 20 urte bitarteko aldia: 3,1.

- 3.2. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ):

- 3.2.1. Karga-tasa ezartzea, %5 izanen baita.

Laugarrena.-Hasiera batean onestea ordenantza fiskaletan tarifak eguneratuz aldaketa egiteko espedientea.

Bosgarrena.-Hasiera batean onetsitako tasa, indize, ordenantza eta arauak 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra, erregelamenduzko tramiteak betetakoan.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325.1 b9 artikuluan xedatutakoari jarraituz, ordenantza fiskaletan tarifak eguneratuz aldaketa egiteko espedientea jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

Lekunberri, 2012ko azaroaren 30ean.-Aikate udalburua, José María Aierdi Fernández de Barrena.

Iragarkiaren kodea: L1217703

LEKUNBERRI

2013ko aurrekontuaren espedientea. Hasierako onespena

Lekunberriko Udalak, 2012ko azaroaren 28an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zituen 2013ko aurrekontuaren espedientea eta hura betearazteko oinarriak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201., 202. eta hurrengo artikuluetan eta harekin bat heldu diren arauetan xedatuari jarraikiz, aurrekontuen espedientea eta hura betearazteko oinarriak Idazkaritzan egonen dira ikusgai 15 egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Lekunberri, 2012ko azaroaren 30ean.-Alkate udalburua, José María Aierdi Fernández de Barrena.

Iragarkiaren kodea: L1217731

LEKUNBERRI**2013ko plantilla organikoa. Hasierako onespina**

Lekunberriko Udalak, 2012ko azaroaren 28an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2013ko plantilla organikoa. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan ezarriari jarraikiz, hara igortzen baitu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua, hasiera batean onetsitako plantilla organikoa jendaurrean egonen da Udal Idazkaritzan, 15 egun baliaduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal honen iragarki oholean iragarkia argitaratuta, herritarrek edo interesdunek komenigarri iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Jendaurrean egon bitartean erreklamaziorik aurkeztu ezean, plantilla organikoa behin betiko onetsizat joko da.

Lekunberri, 2012ko azaroaren 30ean.-Alkate udalburua, José María Aierdi Fernández de Barrena.

Iragarkiaren kodea: L1217732